

**2004KO EKAINAREN 23AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO
BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita hirua

HILABETEA: ekaina

URTEA: Bi mila eta lau

HASIERAKO ORDUA: Goizeko hamarretan

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Bost (5)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Arantxa Aseginolaza Azkargorta

Imanol Aranburu Gutierrez

Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga

ETORRI GABEA: Pello Garaialde Goikoetxea

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2004ko maiatzaren 17ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA KONTRATATZEA.

Ezagutzera ematen dira, etxez etxeoko laguntza-zerbitzua kontratatzeko baldintza pleguaren hainbat ezaugarri, hain zuzen ere:

1.- Xedea:” Beasaingo udalerrian etxez etxeoko laguntza-zerbitzua” kontratatzea.

2.- Prozedura: Lehiaketa

3.- Aurrekontua: orduko 14,33 €

4.- Espedientea: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Beasaingo Udaleko idazkaritzan.

5.- Behin behineko fidantza: lizitatzailleek lehiaketara aurkezteko 6.245 €ko behin behineko fidantza aurkeztu beharko dute.

6.- Behin betiko bermea: Adjudikaziodunak kontratua sinatu aurretik aurkeztu behar duen bermea esleipenaren aurrekontuko %4aren balioa duena izango da.

7.- Proposamen eredua: Baldintza Administratiboen pleguaren eranskinean azaltzen dena.

8.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 20 egunetan.

9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: Pliken irekitzea Beasaingo Udaletxean egingo da, proposamenak aurkezteko amaitu eta ondorengo lanegunean, eguerdiko 12,00etan, larunbata edo jaieguna ez bada behintzat. Kasu honetan plika irekitzea hurrengo lanegunera pasatuko da.

10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitazaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

11.- Lehiaketaren esleipena egiteko erabiliko diren irizpideak, honako hauek dira:

- Oinarrietan ezarritako gehienezko prezio hori baino txikiagoa eskaintzeagatik: puntu bat 0,05 €ko, gehienez 10 puntu arte.
- Enpresaren esperientzia adineko pertsonen zaintzan: 0,5 puntu urte bakoitzeko, gehienez 6 puntu arte.
- Enpresak dituen giza baliabideak, subrogatu beahrreko langileez aparte:
 1. Klinikako laguntzaile titulua edo geriatría laguntzailearena: 0,40 puntu langile bakoitzeko, gehienez 4 puntu arte.
 2. Gida baimena: 0,20 puntu langile bakoitzeko, gehienez 2 puntu.
- Zerbitzuaren kalitatean eta lanaren kudeaketan hobekuntzak (heziketa planak, laneko segurtasun, babes eta osasun planak, ematen den arretaren ebaluaketa-egitaraua): gehienez 5 puntu arte.
- Aurkezturiko estudioaren kalitatea. Zerbitzua eskaintzeko moduaren memoria: gehienez 5 puntu arte.

Bozketa egin da eta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua kontratatzeko baldintza plegua administratibo eta teknikoak onartzea.

Bigarren. Etxez etxeko laguntza zerbitzua kontratazeko deialdia publikoa egitea, iragarkia aldizkari ofizialean argitaratuz.

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galdera atalean ez da inolakori aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera eguerdiko hamabiak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.